# gaurko filmak

**Adiós, Cordera** ★★
Zuz.: Pedro Mario Herrero. 84m. 1965. **11:00 La2**

**Tierra de violencia** ★★
Zuz.: Robert Webb. 94m. 1956. **18:20 ETB2**

**Blink** ★★
Zuz.: Michael Apted. 95m. EEBB. 1993. **20:50 F2**

**P'tits génies** ★
Zuz.: Bob Clark. 95m. EEEBB. 1999. **20:50 C+(f)**

**Mon père, ma mère, mes ...** ★
Zuz.: Charlotte de Turckheim. 95m. 1999. **20:55 TF1**

**Gunmen** ★
Zuz.: Deran Sarafian. 90m. EEBB. 1994. **22:00 T5**

**Nostradamus** ★★
Zuz.: Roger Christian. 112m. 1994. **22:15 ETB2**

**Cosí Ridevano** ★★
Zuz.: Gianni Amelio. 122m. Ita. 1998. **22:00 C+(e)**

**Les mois d'avril sont meurtriers** ★
Zuz.: Laurent Heynemann. 90m. 1986. **23:00 F3**

**Cabezas huecas** ★
Zuz.: Michael Lehmann. 96m. EEBB. 1994. **23:30 A3**

**Hurlyburly** ★★
Zuz.:Anthony Drazan. 117m. 1998. **23:50 La 2**

**La femme d'a côté** ★★★
Zuz.: François Truffaut. 105m. Fran. 1981. **00:40 Arte**

**Dieu seul me voit** ★
Zuz.: Bruno Podalydes. 120m. Fran. 1996. **00:45 F2**

**La carrera de una doncella** ★★
Zuz.: Dino Risi. 111m. Ita. 1975. **02:30 La2**

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

Ane Muñoz



**THRILLER ★★**
**Blink** Zuz.: Michael Apted **F2 20:50**

## Robert Ryan, Virginia Mayoren begiradak erakarrita

**TIERRA DE VIOLENCIA** ★★ **ETB2 - 18:20**

Zuz.: Robert Webb. Akt.: Robert Ryan, Virginia Mayo. 94 min. 1956.

Mendebalde Urrunean girotutako abenturatxo atsegin eta entretenigarri honek garai bateko Hollywoodeko bi izar distiratsu biltzen ditu rol nagusietan: Robert Ryan eta Virginia Mayo. Ohiko *sheriff* zintzo eta ausartak aurre egin beharko dio gaizkile talde bati. Hamaika westernetan kontatu ohi diguten istorio bera errepikatzen du, zinta zuzen batean bilduta. Hala, istorioa arrunta izanik ere, antzezpen txukunek eta Robert D. Webben errealizazio zuzenak nahiko gozagarria egiten dute.

**ADIOS, CORDERA**
★★ **La 2 - 11:00**

Zuz.: Pedro Mario Herrero. Akt.: Carlos Estrada, Jose Maria Prada. 84 min. Esp. 1965.

Leopoldo Alas Clarinen ipuin ezagun baten egokitzapen zahar honetan aktore ospetsuak ageri dira; azken Goya saria jaso duen Emilio Gutierrez Caba, tartean. Izenburuan aipatzen den *Cordera* hori alargun batek semeen gogoz kontra saldu beharko duen behia da. Goizean zer eginik ez duenak tarte atsegina igaroko du kalitatez oso nabarmena ez den lan honekin.

**BLINK**
★★ **F2 - 20:50**

Zuz.: Michael Apted. Akt.: Madeleine Stowe, Aidan Quinn. 95 min. EEBB. 1993.

Michael Apted zuzendariak Madeleine Stowe modakoa (*The last of the mohicans*) aukeratu zuen, Terence Youngen *Wait until dark* zoragarria oinarritzat duen drama zozo hau filmatzeko. Aktore gazteak aurreko bertsioan Audrey Hepburn goxoak antzeztu zuen protagonista itsuarena egiten du, baina ez da asko luzitzen Aidan Quinn ezagunaren alboan. Dena den, erraz ikusiko duzue, oso exijenteak ez bazarete. *Sola en la penumbra* izenburuarekin estreinatu zen Hegoaldean.

**GUNMEN**
★ **T5 - 22:00**

Zuz.: Deran Sarafian. Akt.: Christopher Lambert, Mario Van Peebles. 90 min. EEBB. 1994.

Christopher Lambert espresiogabeak jokatzen du rol nagusia Amazoniako oihanean kokatua dagoen akziozko film kaskar honetan. Hain zuzen, aktore zozo horren luzimendua lortzen saiatu zen Sarafian zuzendaria —bide batez, esan dezadan zuzendariak berak agerpen txiki bat egin zuela kameraren aurrean—. Mario Van Peebles aktore eta zuzendari beltzak rol garrantzitsua jokatzen du Christopher Lamberten alboan.

**NOSTRADAMUS**
★★ **ETB2 - 22:15**

Zuz.: Roger Christian. Akt.: Tcheky Karyo, F. Murray Abraham. 112 min. 1994.

Izenburuan aipatzen den iragarlearen inguruko drama garesti hau Alemaniak, Britainia Handiak eta Frantziak ekoitzi zuten elkarrekin, hainbat herrialdetako aktoreak bildurik; Assumpta Serna kataluniarrak parte hartzen du, Amanda Plummer, Rutger Hauer eta Julia Ormond ezagunen alboan. Irudi landu eta ikusgarriz osatua badago ere, abiapuntutzat gidoi herrena hartu zuten, eta, azkenean, film txiki bat besterik ezin egin.

**LA FEMME D'A CÔTE**
★★★ **Arte - 00:40**

Zuz.: François Truffaut. Akt.: Gerard Depardie, Fanny Ardant. 105 min. Fran. 1981.

Truffaut maisu frantziarraren istorio erromantiko eder hau joan den astean eman zuten, eta, beraz, orduan ikusteko aukerarik izan ez zenutenei gomendatuko dizuet gaur. Aspaldian bikote izandako gizon batek eta emakume batek ezingo dute ekidin elkarren arteko maitasuna piztea. Rol horiek Gerard Depardieuk eta Fanny Ardantek jokatzen dituzte.

### ETB-1

**07:00:** Betimu.
**07:25:** Betizu.
Yogiren taldea.
Hartz txiki.
Yogi hartza.
Scooby Dooren abentura berriak.
**08:45:** Gure lanbide zaharrak.
**09:25:** E-klipse@.
**10:15:** Jaun ta jabe.
**11:10:** Benta berri.
**11:30:** 64.
**11:55:** Elkartasunaren bideak.
**12:35:** Bibaide.
Egun argitan.
**13:25:** Iparraldearen orena.
**13:35:** Betizu.
X- taldea.
**14:00:** Gaur Egun.
Albistegia.
**14:40:** Bertatik bertara.
**15:10:** Goenkale.
Telesaila.
**15:40:** Bosteko familia.
**16:25:** Bidaide.
Errinozeroaren bidaia.
**17:20:** Hasiberriak.
**17:45:** E-klipse@.
**18:25:** Betizu.
Gadget inspektorea.
Sheena.
**19:50:** Betimu.
**20:28:** Gaur egun.
Albistegia.
**20:50:** Kirolez kirol.
**21:05:** Euskadiko literatur sariak 2001.
**21:50:** Goenkale.
**22:40:** Sorginen laratza.
**23:55:** Firin faran.
**00:55:** Bakarrik edo...
**02:55:** Giza gorputza.
**03:45:** Euskadi literatur sariak 2001.
**04:30:** Esanak esan.
**05:05:** Elkartasunaren bideak.
**05:35:** Euskal Herritik.
**06:05:** Osabideak.
**06:10:** Ikusgela.

### TVE1

**06:00:** Canal 24 horas.
**07:30:** Telediario matinal.
Los desayunos de TVE.
Gonbidatua: Juan Cotino.
**10:15:** Pobre diabla.
Telesaila.
**11:30:** Saber vivir.
Manuel Torreiglesiasek aurkeztutako magazina.
**12:45:** Así son las cosas.
Manuel Gimenezek aurkeztutako saioa.
**14:00:** Informativo Territorial.
Albistegia.
**14:30:** Corazón de Otoño.
Anne Igartiburuk aurkeztutako saioa.
**15:00:** Telediario 1
Albistegia.
**16:00:** Eguraldia.
**16:05:** El secreto.
Telesaila.
**16:50:** Cuando seas mia.
Telesaila.
**18:45:** El precio justo.
Telesaila.
**20:00:** Gente.
Sonia Ferrerek eta Pepa Buenok aurkeztutako saioa.
**21:00:** Telediario 2.
Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** En familia.
**00:00:** Esta es mi historia.
Ana Garcia Lozanok aurkeztutako saioa.
**01:45:** Telediario 3.
Albistegia
**02:15:** C16.
Telesaila.
**03:00:** Canal 24 horas.

### ETB-2

**07:05:** Del pais de los vascos.
**07:35:** Europa Europa.
**08:00:** Cafe co-media.
Radionoticias.
El show de Jeff Foxworthy.
La cruda realidad
Loco por ti.
**09:30:** El punto. Gonbidatua: Mohamed Salem.
**10:00:** Forum. Gonbidatua: Itziar Insausti.
**10:30:** La niñera.
**11:00:** Ned and Stacey.
**11:30:** Clasicos en serie.
**13:30:** Euskadi directo.
**13:30:** Navarra directo.
Nafarroan.
**13:55:** El principe de Bel Air.
**14:20:** Date el bote.
**14:58:** Teleberri. Albistegia.
**15:45:** Lo que faltaba.
**18:20:** Zinema:
**Tierra de violencia**
Zuz.: Robert Webb.
Akt.: Robert Ryan, Virginia Mayo. 1956.
**20:00:** Esta es mi gente.
**20:58:** Teleberri. Albistegia.
**21:45:** La noche de...
(22:15)**Nostradamus**
Zuz.: Roger Christian.
Akt.. Tcheky Karyo, F.Murray Abraham. 1994.
**00:40:** Mundo.hoy.
*Kurdista, viaje al pais prohibido.*
**01:30:** Pasados de vueltas.
**02:00:** Shasta.
**02:50:** Medias de seda.
**03:35:** Esta es mi gente.
**04:30:** Lo que faltaba.

### A3

**06:15:** La ley de Los Angeles.
**07:05:** Ana de las tejas verdes.
Telesaila.
**07:30:** Club Megatrix.
Ace aventura.
Chicho terremoto.
Marsupilami.
**09:00:** Especial informativo.
**09:30:** El primer cafe.
**10:30:** De buena mañana.
Magazina.
**13:25:** Informativos territoriales.
**13:30:** Nada es para siempre.
**14:00:** Sabrina.
Telesaila.
**14:30:** La niñera.
Telesaila.
**15:00:** Noticias 1.
Albistegia.
**16:00:** Yo soy Betty, la fea.
Telesaila.
**16:40:** Sabor a ti.
Ana Rosa Quinanak eta Antonio Hidalgok aurkeztutako magazina.
**18:55:** El diario de Patricia.
**20:00:** Pasapalabra.
Lehiaketa.
**21:00:** Noticias 2.
Albistegia
**22:00:** Compañeros.
Telesaila.
**23:30:** Zinema.
**Cabezas huecas**
Zuz.: Michael Lehmann.
Akt.: Brenden Fraser, Steve Buscemi. 1994.
**01:00:** Noticias 3. Albistegia.
**01:30:** Televenta.
**04:15:** Repeticion de programas.

# irratia




**EUSKADI IRRATIA.** Mikel Tabernak argitaratu berri duen *Txokolatezko dinamita* liburuaz hitz egingo du gaur goizeko 11:00etan *Goizean behin* saioan.

**TXOLARRE IRRATIA.** Joxe Landak eguraldiaren berri emango du, ohi bezala, goizeko 11:00etan. 11:15ean, albisteen errepasoa egingo dute. 11:45ean, nekazaritzari eskainitako *Bota piñue* atalean, Fraisoro eskolak nekazari ingurunean bizi diren lagunei zuzendutako euroaren inguruko ikastaro batez hitz egingo dute. 12:15ean, Andoaingo Salkin merkataritza elkarte berriaz arituko dira.

**MOLOTOFF IRRATIA.** *Igo teloia* irratsaioan, Pako Aristi elkarrizketatuko dute gaueko 22:00etan. Mikel Garmendiari buruz idatzi duen biografiaz arituko da Aristi. Eta Joxe Mari Karrerek Alfonso Sastre kultur elkarteak antolatutako jardunaldiei buruz hitz egingo du.

**RADIO EUSKADI.** LAB sindikatuko buru Rafa Diez Usabiaga elkarrizketatuko dute gaur goizeko 09:00ak aldera. Arratsaldeko 17:00etan, *La jungla sonora* irratsaioan, *Led Zeppelin IV* diskoko abestiak gogoratuko dituzte haren 20. urteurrenean.